

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

BERRI PAPERERA



araba@bertsozale.eus
945 01 05 05

Amaia Zentroa
Benito Perez Galdos
01002 Gasteiz

www.bertsozale.eus/araba

Denak ondo eserita, zintzo!

Perez de Mendiola, Arriolabengoa, Zugadi, Simon, Eriz eta Bakaikoa zutik, beste guztiak beren eserlekuetan



Printzipal Antzokiko lege berriak horrela agintzen du: ... entzulea bere sarreran jartzen duen eserlekuan eseriko da; belauak elkartuta eta eskuak belauen gainean, ekitaldiaren hasieratik bukaera arte...

Tururu!! Lehenengo anfiteatron oilategia muntatu dugu, seguratak akabatuko ditugu eta bertan hooliganen kantuak entzungo dira.

Joan **sarrerak** erosten principiantzokia.org gunean.

Eszenatokian 5 beterano eta pipiolo bat:

Oihane Perea Perez de Mendiola

Manex Agirre Arriolabengoa

Zigor Enbeita Zugadi

Iñaki Viñaspre Simon

Xabi Igoa Eriz

Ruben Sanchez Bakaikoa

Txapela prest, nork jantziko du? Karmele Madinabeitia, Gasteizko bertso-eskola eta Arabako Elkarte kidea eta sustatzailea.

Eta finala eta gero... **Afaria**, potentea, esponja egiteko, La Bilbaina jatetxean, 20€-ren truke. Ticketak salgai bertsozararak.eus gunean.

Hau bi urtetan behin gertatzen da. Ez galdu!

KOPLA

Berripapera pixkat berritzen egin dugu ahalegina zuen gustoko izan dadila egin diogun lifting-a



Argitalpenaren laguntzaileak

- Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
- www.alava.net
- EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Batzar Orokorra Langraiz Okan

Onartuta, aurten "mantendu"




Azken urteetan egin izan den antzera, Txapelketaren aurkezpen prentsaurrekoa baliatuz Arabako Bertsozale Elkartearen Batzar Orokorra ospatu genuen urtarrilak 17an Langraitzen. 20 bazkide bildu ginen Añanan lehenengoz ospatzen zen batzarrean (Añanaren bertso-konkistaren hasiera besterik ez da izan hau) eta "mantendu" hitzak laburbildu lezake ondoen batzarrean jorratutakoa.

Zuzendaritzan izan diren aldatketak izan ezik (ongi etorri berriei eta mila esker joandakoei) dena izan baitzen "mantendu". Gorbeialdean bertso-eskolen kopurua "mantendu", Añanan presentzia "mantendu", Sustapenean... "mantendu", Ikerkuntzan... "mantendu". Bertsozale Elkarte bat izateko poto gehi-egi ez ote den hori...

Eta ezin tripa utzik "mantendu" egon ohi garenez, sekulako bazkaria izan genuen ondoren, babak, saiheskia, bertsoaren bat edo beste eta batez ere giro ederra.

(agian Añanak konkistatu gaitu gu...)

Bertsokatun ez daude lau katu



Asteazkenean lagun batekin joan nintzen pote bat hartzera, ohiko tabernara iristean betebeteta zegoela ikusi genuen. Hala ere, sartzea erabaki ge-

nuen. Kutziko katu batek argitu zigun, kutxiko taberna batzuen artean bertso-sariketa bat antolatzen dutela, arabar bertsolari gazte eta unibertsiarioez osatuta. Orduan, estu egon arren, saioan geratzea erabaki genuen. Abesti ezagunen doinuekin egin zuten agurra eta ondoren ez zen umorerik faltatu. Saioa ikusita, martxoaren 26an "jokatuko" den finalerako data gordeta daukat.

Bertso-korrika Badatoooooor!



Korrikaren azken edizioetan bezala, aurtengoan ere bertsozaleok korrika bertsoz busti dadin ahalegin polita egin dugu.

29 bertso-eskolak hartu dute euren herrian saioa antolatzeko ardura; 120 bertsolari inguru kantari eta 30 gai-jartzaile euskaltegian klase didaktikoak emateaz eta bertso saioan gai-jartzaile lanak egiteaz arduratuko direnak.

Non? Gurean Kanpezu, Agurain, Oion eta Laudion. Ikusi agendan.

Bizkaian Durango, Zornotza, Derio, Bilbo, Barakaldo, Algorta, Erromo, Markina-Xemein, Gernika-Lumo, Zalla, Galdakao, Arrigorriaga eta Deustun. Gipuzkoan Larraul, Andoain, Ordizia, Arrasate eta Lasarten. Nafarroan Larraun, Iruñea, Lizarra eta Elizondon. Lapurdin Azkaine, Itsasu eta Hendaian eta Zuberoan Urdiriñarben.

Tipi-tapa tipi-tapa... bertso lata!

Kolorez bete dezagun udaberria!

Bertso abenturak SARRIA eta ESPEJON



Apirilaren 8tik 10era bitartean bi barnetegi izango dira Araban 8-

11 urteko haurrentzat: Lehena Aiaraldeko haurrekin Añanako lurre-

tan, bigarrena, Gorbialdeko haurrekin Sarrarian, Gorbeiaeren magalean.

Izen ematea zabalik egongo da Martxoaren 20ra arte eskualde horietako udaletan. Oporraldian bertsoz busti, ingurunea eta inguruneke haurrak ezagutu,

euskaraz sortu, gozatu eta bazterrak nahastea izango dira helburu nagusiak. Begirale bertso-eskoletako irakasle eta bertsolari gazte jatorrak, dena emateko prest. Aitzakiarik gabeko plana etxeko txiki-entzat.

Arabako Bertso-eskoletako irakasleen batzordea osatu da

Arabako Biltzar Nagusien mailara iritsiko den taldea, bai horixe! Bertso-eskola, hezkuntza arautua eta eskualde guztiak ordezkatuz, hasiera gogotsua eman diote agintaldiari. Eskualdez eskualdeko erradiografia egin, 2015erako lan kontratu eta baldintzak ezagutu, zalantzak argitu, eta hurrengo urterako helburuak zehaztu zituzten iazko abenduaren 13an. Gehiagorako ere eman zuten lehen biltzar nagusiak, "taifa erresuma"tik atera, elkarren berri izan, kezkak konpartitu, eta elkarrengandik ikasteko aukera ere izan zuten eta bertaratutako 13 irakasleek.

Behin lau oinak lurrean jarrita, ibiltzen hastea



tokatzen denez, bigarren bilera eta bazkari gogoangarri bat ere izan zen otsailaren 22an Zaldudon. Transmisio ahaldu nagusia ere aukeratu zen, Julen Zulaikari egokitu zitzaion Zuzendaritza batzordeko marroitoa.

Bigarren bilera horretan zehaztu ziren, Arabako bertso-eskolen 2015eko jai eta lan egutegiak. Festa ugari eta opor gutxi izango dira. Apirilean izango diren bar-

netegietan tokian tokiko irakasleak begirale izango dira, beraz haurrek bertsoekin eta inguruko eskolekin zuzeneko igurtzia izango dute oporretan. Maiztean zehar eskolartekoa, urtero legez, eta eskualde eta herrien topaketak antolatuko dituzte bertso-eskolek. Okerrik ezean maiatzaren 23an Kanpezun izango da finala eta festa, San Prudentzio ere zur eta lur utziko duen Arabako haur eta

gazte sinpatikoenen festa. Ekainean ikasurtea amaituta, hausnartzeko tartea hartuko dute irakasle jaun eta andre txit agurgarriek, pilak kargatu eta irailean gogotsu hasiteko. Eta gogotsu hasi beharko da, izatez, azaroan Euskal herriko bertso-eskolen eguna Agurainen izango dela ere erabaki baitzen. Beraz, zer esan, adi hitzorduei eta txalo bero bat Arabako bertso-eskoletako irakasleentzat.


AGENDA!

Martxoak 13 LAUDIO	BERTSO KORRIKA	Arrañaope taberna, 20:00 Manex Agirre, Ainhoa Comas, Izar Mendiguren, Asier Rubio Gai-jartzailea: Unai Mendibil
Martxoak 13 BITORIANO	BERTSO AFAIRA	Bitorianoko txokoan, 21:00 Ruben Sanchez, Aitor Sarriegi Antolatzailea: Zuiako Udala
Martxoak 14 AGURAIN	BERTSO KORRIKA	Herriko Taberna, 22:00 Onintza Enbeita, Xabi Paya, Oihane Perea, Ruben Sanchez Gai-jartzaileak: Oier Suarez
Martxoak 14 OION	BERTSO KORRIKA	Txoko taberna, 20:00 Manex Agirre, Orlando Arreitunandia, Unai Bengoetxea, Zigor Enbeita, Iker Olabarrieta Gai-jartzailea: Arantxa Sobrino
Martxoak 14 KANPEZU	BERTSO KORRIKA	K-18 tabernan, 19:30 "Bi bala" emanaldia, Aitzol Barandiaran, Iñaki Gurrutxaga Antolatzailea: KORRIKA batzordea, bertso-eskola
Martxoak 18 GASTEIZ	BERTSO KATU	Aizkora taberna, 19:30 Peru Abarrategi, Koldo Gezuraga, Xabi Igoa, Maria Izaga Gai-emaileak: Ane Olano
Martxoak 21 GASTEIZ	ABTX FINALA	Printzipal Antzokia, 19:30 Manex Agirre, Oihane Perea, Zigor Enbeita, Iñaki Viñaspere, Xabi Igoa eta Ruben Sanchez Gai-jartzaileak: Aintzane Irazusta, Marta Ugarte
Martxoak 26 GASTEIZ	BERTSO KATU FINALA	Auzolana Pilotalekua Antolatzailea: Kutxi katua tabernak

DATORRENA

Araba Bertsozale egitasmoa aurreratuta, udaberrian eta uda partean Arabako eskualde bakoitzean bina saio burutuko dira; aurreko urtetan bezala bertso-eskolek antolatuko dituzte.

ZERNAHI



Guixi falta duk, gero eta guxiago urtarrilean hasi gintuanetik. Bertsolariak, gai jartzaileak, epaileak, eta noski!, entzule bertso frikiak... Dulantzi, Audio, Legutio, Aramaio, Zigoitia eta Langraiz Oka. Zenbat kilometro egin ditiat dagoeneko? Zenbat bertso entzun? Eta errimetaz ere ez nauk enteratu... Ea... Mikro honen bolumena altu zegok, akoplatu egiten duk, ea Canon hau hor sartzen badiat... Eta aber sintonia... Diskmana entxufatu eta miniyacka sartu! Prest! Perfekto! Telebista-koak ere etorri dituk... Ona! Hori duk! Pankarta zintzilikatzeoko burniak ere hortxe zeudek, sei aulkiak aurretik eta gai jartzailearentzako kuxta hori... Kabendio! Ura ezin diat ahaztu! Bazetozek, bertsolariak hurbiltzen ari dituk.... Sssssss ixo! Hastear zegok eta... Arratsalde on eta ongi etorri Arabako Bertsolari Txapelketako...